

LITERATURA UNIBERTSALA

Literatura biblikotik hasita eta gaur egunera arte, Mendebaldeko idazlerik garrantzitsuenen errepaso egiten da, hala nola, Shakespeare, Edgar Allan Poe, Frank Kafka edo Pablo Neruda, besteak beste. Hauen lanak komentatu eta interpretatzen dira gelan, ikasleak edozein lan literario komentatzeko eta interpretatzeko trebetasuna beregana dezan.

Metodologia:

Testu libururik ez dugu erabiliko, gehienetan fotokopia eta euskarri digitalen bidez landuko dugu arloa. Irakurgaiak euskaraz landuko dira ahal den guztietan; hiztegia (paperean edota onlinekoa) beti eskura egongo da.

Literaturako gai nagusiekin zerikusia duten zenbait film ikusiko ditugu: Troya, Hamlet... Baita zenbait dokumental eta elkarrizketa ere; obrei, idazleei zein literaturako gaiei buruzkoak.

IKTak ikasleekin lanak partekatze eta ikasleen arteko elkarlanerako ere erabiliko ditugu: Classroom erabiliko dugu ikasleei lanak eskatzeko edota materialak banatzeko.

Dokumentuak sortzeko tresnak, offline zein online (Power Point, Googleko aurkezpenak...) era askotakoak izango dira.

Lanak, aurkezpenak... banaka, binaka eta taldeka burutuko dira.

Ebaluazioa:

Ez da azterketarik egingo; egindako lanak eta jarrera ebaluatuko dira.

Helburu nagusia irakurtzen gozatzea eta irakurritakoa ulertzea eta analizatzea da.